Nafarroako Kontuetako Ganbararen eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Arteko Lankidetzarako Marko Akordioa

Acuerdo Marco de Colaboración entre la Cámara de Comptos de Navarra y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

Cámara de Comptos de Navarra

Herri - Kontuen Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

Nafarroako Kontuetako Ganbarak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, nor bere lurraldearen esparruan herri-alorraren kanpo kontrolerako erakunde den aldetik, beren egitekoen artean lehentasunezko xede dute bakoitzak bere herri-alorraren ekonomia eta finantzazko kudeaketaren fiskalizatze-lana gauzatzea, burutzen dituzten txostenen bitartez fiskalizatze-lan hauen gai diren erakundeen diru publikoaren kudeaketa hobetzen lagunduaz.

Erronka hau zorroztasunez hezurmamitu ahal izateko, etengabe garapen eta aurrerabidean dagoen diru publikoen fiskalizatze eta auditoretzazko arlo honetan, ezinbestekoa da erakunde fiskalizatzaile hauek beren lan sistema eta bideak etengabe eguneratu eta hobetu ezezik, bertako langilegoa ere trebatzea.

Kezka honek eraginda, Nafarroako Kontuetako Ganbararen eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariek, hainbat bilera egin dituzte azken hilabeteotan langai duten eremuaren inguruan dituzten ideia eta esperientzien berri elkarri eman eta bi erakundeen artean lankidetzarako bide bateratuak urratzearren.

La Cámara de Comptos de Navarra y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, como órganos de control externo del sector público en el ámbito de sus respectivas Comunidades, tienen como objetivo prioritario de su actuación la fiscalización de la gestión económico-financiera del sector público coadyuvando, a través de sus informes, a mejorar la gestión de los fondos públicos de las entidades por ellos fiscalizadas.

Para poder responder con rigor a este reto, en un entorno como el de la fiscalización y auditoría de los fondos públicos en constante evolución y progreso, es esencial para estas Entidades Fiscalizadoras la actualización y mejora constante de sus sistemas y métodos de actuación así como la capacitación permanente de su personal.

Con esta inquietud, los Presidentes de la Cámara de Comptos de Navarra y del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, han mantenido durante los últimos meses diversos contactos con el fin de intercambiar ideas y experiencias en la materia y buscar vías comunes de colaboración entre sus respectivas Instituciones.

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA • TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS •

COMPTOS DE NAVARRA

Saio hauen ondorio izan zen, bi erakundeek interes bereko dituzten arloetan, aldian behin eta jarraitasunez lankidetzan aritu ahal izateko erreferentziagune egokia izatea bideratuko dien Akordioa garatu eta onartua izateko bidezko eskakizunak egitea, Nafarroako Kontuetako Ganbararen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legean ezarritako eskumenen erregimena estu-estu gordeaz.

Guzti honegatik, FRANCISCO JAVIER TUÑON SAN MARTIN Jn. Txit Gorenak, Nafarroako Kontuetako Ganbararen Lehendakari den aldetik eta bertako ordezkari gisara, eta JUAN LUIS LASKURAIN ARGARATE Jn. Txit Gorenak, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakari den aldetik eta bertako ordezkari gisara, LANKIDETZARAKO MARKO AKORDIO hau baitetsi dute, segidan zerrendaratzen diren KLAUSULAK oinarri dituztela:

Consecuencia de estos contactos fue la idea de elaborar y aprobar, por las instancias oportunas de ambas Instituciones, un Acuerdo que les permita contar con un marco de referencia adecuado dentro del cual poder colaborar, de forma periódica y regular, en las diversas áreas de interés común, con respeto estricto al régimen competencial establecido en la Ley Foral 19/1984, de 20 de diciembre, de la Cámara de Comptos de Navarra y en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.

Es por ello que los Excelentísimos Señores D. FRANCISCO JAVIER TUÑON SAN MARTIN, como Presidente de la Cámara de Comptos de Navarra y en su representación, y D. JUAN LUIS LASKURAIN ARGARATE, como Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y en su representación, otorgan el siguiente ACUERDO MARCO DE COLABORACIÓN y lo hacen conforme a las siguientes CLAUSULAS:

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA • TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS •

SIGILLVM CAMERAE COMPTORVM

NAFARROAKO KONTUETAKO GANBARAREN ETA HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO MARKO AKORDIOA

ACUERDO MARCO DE COLABORACION ENTRE LA CAMARA DE COMPTOS DE NAVARRA Y EL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS

KLAUSULAK

CLAUSULAS

Lehenengoa.- Nafarroako Kontuetako Ganbararen eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren arteko Akordio honen xedea da erakunde hauen artean erreferentziazko marko zabal bat ezartzea, interes bereko dituzten arloetan elkarren arteko lankidetza eta elkarlana bideratuko duena.

Primera.- El presente Acuerdo entre la Cámara de Comptos de Navarra y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas tiene como finalidad establecer entre dichas Instituciones un marco genérico de referencia que permita la colaboración y cooperación recíproca de las mismas en áreas de interés común.

Bigarrena.- Hona hemen Erakunde hauen artean lankidetza eta elkarlanerako ezarri diren lehentasunezko alorrak:

Segunda.- Como áreas de colaboración y cooperación prioritarias entre estas Instituciones se establecen las siguientes:

a) **Langilegoaren Trebakuntza.** Alor honetan fiskalizatze lana burutzen duten erakundeek:

a) **Formación de Personal.** En este área las respectivas Instituciones fiscalizadoras:

1. Aldian behin bilera, mahai inguru eta orohar, erakunde bakoitzeko teknikari eta langilego administrariaren artean topaketak egitea sustatuko dute, iritzi eta esperientziak elkartrukatzearren eta baterako interesa duten gaiak eztabaidatzearren.

2. Elkarri informazioa ematea eta bi erakundeetatik zeinahik antolatutako ikastaroetara bateko zein besteko langilegoa joatea bideratuko dute.

3. Interes bereko dituzten gaiei buruzko ikastaro eta mintegien antolaketa indartuko dute.

4. Elkarren lan taldeetan teknikariak integratzea bideratuko dute, fiskalizatze-teknika berrietan edota interesgarri irizten dieten bestelako gaietan trebatzearren.

1. Promoverán la celebración periódica de reuniones, mesas redondas y, en general, encuentros de sus respectivos técnicos y personal administrativo, al objeto de intercambiar opiniones y experiencias, y debatir temas de interés común.

2. Facilitarán el intercambio de información y la asistencia recíproca de su personal a cursos y seminarios organizados por cualquiera de ellas.

3. Potenciarán la organización de cursos y seminarios en materias de interés común.

4. Facilitarán la integración recíproca de técnicos en sus equipos de trabajo de cara a su formación en nuevas técnicas de fiscalización o en otras materias que se consideren de interés.

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA • TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS •

b) **Lanen kalitatea.** Alor honi dagokionez, erakunde fiskalizatzaile bakoitzak lankidetzan beren lanen hobekuntza eragin dezaketen alderdi guztiei buruzko informazioa emango du, txosten motei buruzkoa esaterako, ikuspuntua, hedapena eta egituraketa, eredua eta aurkezpena; eskuratutako emaitzen jakinarazpena e.a.. Berebat, burutzen dituzten lan eta txostenak egiteko eta hauen geroko kalitatea kontrolpetzeko irizpide bateratuak ezarri ahal izango dituzte.

c) **Ekintzen koordinaketa.** Fiskalizatze-teknika berrien garapen eta ezarpenean aurrerapausorik egin asmoz eta erakunde hauek burutzen dituzten txostenen ikuspegi eta hedapenean bide berriak urratu asmoz, Nafarroako Kontuetako Ganbarak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, bakoitzak bere urteko lan programan gai homogeneoei buruzko txostenak egitea eta berariazko fiskalizatze-lanei ekitea barne-hartu ahal izango dute, hauen egitura, eduki eta eremuak jarraibide tekniko berberekoak izango direlarik;

b) **Calidad de los trabajos.** En este ámbito, las respectivas Entidades Fiscalizadoras cooperarán e intercambiarán información sobre todos aquellos aspectos que puedan redundar en una mejora de la calidad de sus actuaciones, como por ejemplo los tipos de informes, su enfoque, alcance, estructura, diseño y presentación; la comunicación de los resultados obtenidos, etc. Asimismo, podrán establecer criterios comunes básicos para la realización de trabajos e informes y su ulterior control de calidad.

c) **Coordinación de actuaciones.** Con el fin de avanzar en el desarrollo y aplicación de nuevas técnicas de fiscalización y de dar nuevos pasos en el enfoque y alcance de los informes que estas Entidades realizan o cuando las circunstancias así lo aconsejen, la Cámara de Comptos de Navarra y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas podrán incluir en sus respectivos programas anuales de trabajo la elaboración de informes sobre materias homogéneas y abordar actuaciones de fiscalización específicas cuya estructura,

guzti hau erakunde fiskalizatzaile bakoitzaren berezko eta berariazko eskumenen alorrean, batik bat auditoretza operatibo edota kudeaketazkoak deiturikoei dagokienean.

contenido y alcance respondan a las mismas directrices técnicas, todo ello en el ámbito de las competencias propias y exclusivas de cada órgano fiscalizador y referido especialmente a las denominadas auditorías operativas o de gestión.

d) Zerbitzu eta Informatikaren antolaketa. Nafarroako Kontuetako Ganbarak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak zerbitzu eta aretoen antolakuntzari berari dagozkion gaietan ezezik, (artxibategiak, liburutegiak, erregistroak e.a.), bulegoen mekanizatzeari eta beren lanetan informatika ezartzeari dagokion guztian ere, lagundu eta lankidetzan aritu ahal izango dute.

d) Organización de los Servicios e Informática. La Cámara de Comptos de Navarra y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, podrán colaborar y cooperar en las materias propias de organización de sus servicios y dependencias (archivos, bibliotecas, registros, etc..), así como en todo lo referente a mecanización de oficinas y aplicación de la informática a sus respectivos trabajos.

e) Bestelakoak. Arestian azaldu ditugun arloetan ezezik, Nafarroako Kontuetako Ganbarak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak bestelako gaietan ere elkarlanean aritzerik izango dute, esate baterako langilegoari dagokionean, auditoretzazko, kontabilitatezko edota bi erakundeetan eragina duten bestelako arauen ikerketa eta interpretazio lanean, berariazko fiskalizatze

e) Otros aspectos. Junto a las áreas enumeradas anteriormente, la Cámara de Comptos de Navarra y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas podrán colaborar en otros aspectos como los relativos al personal, el estudio e interpretación de normas de auditoría, contabilidad o de otra clase que afecten a ambas Instituciones, la contratación de expertos para la realización

lanak burutzeko adituen kontratazioan eta orohar, guztientzat interesgarri gerta daitezen gaietan.

de fiscalizaciones específicas y todos aquellos otros de interés común.

Hirugarrena.- Nafarroako Kontuetako Ganbarak eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak aldizka bakoitzaren txosten eta lanei buruzko informazio eta agiriak ezezik, jasotzen dituzten liburu, aldizkari eta bestelako argitalpenei buruzkoak ere elkartrukatuko dituzte; baita urteko lan programa, plantilla organiko, aurrekontu, trebakuntza-egitasmo, erakunde publiko eta pribatuekiko trebakuntza eta lanen egintza gaietan lankidetza itune eta orohar, interesgarri gerta daitezen gai guztiei buruzko informazio eta agiriak ere.

Tercera.- La Cámara de Comptos de Navarra y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas intercambiarán periódicamente información y documentación sobre sus respectivos informes y trabajos así como sobre las relaciones de libros, revistas y otras publicaciones que reciban. Asimismo, ambas Instituciones intercambiarán información y documentación sobre planes anuales de trabajo, plantillas orgánicas, presupuestos, planes de formación, convenios de colaboración con entidades públicas y privadas en materia de formación y realización de trabajos y sobre cuantos otros aspectos consideren de interés.

Laugarrena.- Akordio honetatik eratorritako erakundeen arteko lankidetza mailarik gorena lortzearren, Erakunde Fiskalizatzaile bakoitzeko kideek ezezik, bertan baimena duen langilegoak ere horretarako beharrezko diren harremanak ezarri ahal izango ditu, eraginkortasunik goreneko irizpide osotu baten baitan.

Cuarta.- Al objeto de hacer efectivo el mayor grado de colaboración institucional derivado del presente Acuerdo, los miembros de las respectivas Entidades Fiscalizadoras, así como el personal autorizado de las mismas, podrán establecer los contactos precisos tendentes a ello dentro de un criterio global de máxima operatividad.

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA · TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PUBLICAS ·

Bostgarrena.- Bi Erakundeetako Lehendakari eta Idazkari Nagusiek osaturiko Jarraipen Batzorde bat sortuko da, Marko Akordio honetan edo hala badagokio, honen garapen den bestelako edozein agiritan bildutakoa beteko dela begiratuko duena. Batzorde hau gutxienez, sei hilabetero bilduko da.

Iruñean, mila bederatzirehun eta larogeitamabiko urriaren zortzian.

Quinta.- Se crea una Comisión de Seguimiento, integrada por los Presidentes y Secretarios Generales de ambas Instituciones, encargada de velar por el cumplimiento de lo estipulado en el presente Acuerdo Marco y, en su caso, en cualquier otro documento que lo desarrolle. Dicha Comisión se reunirá, como mínimo, semestralmente.

En Pamplona, a ocho de octubre de mil novecientos noventa y dos.

Nafarroako Kontuetako Ganbararen Lehendakariak / El Presidente de la Cámara de Comptos de Navarra

Izp./Fdo.:
Francisco Javier Tuñón San Martín

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Lehendakariak / El Presidente del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

Izp./Fdo.:
Juan Luis Laskurain Argarate